ORIOKOUDALA

Euskaraz bizi-bizi

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, ORIOKO HONDARTZA ALDEAN KOMUN AUTO-GARBIGARRI BAT HORNITU ETA INSTALATZEKO

1.- Kontratuaren helburua

Baldintza-agiri honen helburua da Orioko Hondartza aldean jarriko den KOMUN AUTOGARBIGARRI BAT hornitu eta instalatzea, kontratazio-organoak izendatutako kontratuaren arduradunak gainbegiratuta.

2.- Horniduraren ezaugarri teknikoak

Modulu higienikoa hormigoi armatuzko edo antzeko material bateko kabina irisgarri bat izango du, gutxienez neurri hauek izango dituena: 3700(L) x 2200(A) x 2300(H). Kabinak gutxienez 3 plazako kanpoaldeko pixatoki jarraitua izango du, altuera ertainera arteko holtz baten bidez babestua. Indarrean dagoen araudia bete beharko du irisgarritasunari eta bereizkeriarik ezari dagokionez:

- 505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarrizko baldintzak onartzen dituena, espazio publiko urbanizatuetan eta eraikuntzetan sartzeko eta horiek erabiltzeko.

- Ezgaitasuna dutenen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO E INSTALACIÓN DE UNA CABINA- ASEO AUTO- LIMPIABLE EN LA ZONA DE HONDARTZA DE ORIO

1.- Objetivo del contrato

El presente pliego tiene como finalidad el suministro e instalación de UNA CABINA-ASEO AUTOLIMPIABLE a colocar en la zona de Hondartza de Orio, bajo la supervisión del responsable del contrato designado por el órgano de contratación.

2.- Características técnicas del suministro

El módulo higiénico estará dotado de cabina de aseo accesible de hormigón armado o similar de dimensiones mínima de 3700(L)x 2200(A)x2300(H)y de urinario continuo exterior de al menos 3 plazas, resguardado mediante mampara hasta media altura. Cumplirá la normativa vigente en materia de accesibilidad y no discriminación:

- El Real Decreto 505/2007, de 20 de abril, por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones.

- Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobada mediante Real Decreto Legislativo 1/2013, de

bidez onartua.	29 de noviembre.
• ETXEB/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa, espazio publiko urbanizatuetan sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duena.	• La Orden VIV/561/2010, de 1 de febrero, por la que se desarrolla el documento técnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados.
• Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea, Euskadikoa.	• La Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la promoción de la accesibilidad de Euskadi.
• 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, Euskadiko ingurune urbanoen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.	• El Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación de Euskadi.
• 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa.	• Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.
Moduluaren ezaugarriak:	Características del módulo:
• Kanpoko estaldura, ahal dela, beirazko mosaikoz osatua egongo da. Beste akabera batzuk ere eskaini ahal izango dira, hala nola, barneko binilozko beira bikoitza, portzelanazko gres arteztua edo altzairu herdoilgaitza, eta CTE SUA bete beharko da.	• El revestimiento exterior estará conformado preferentemente de mosaico de vidrio. Se podrán ofertar otros acabados como, vidrio doble con vinilo interior, Gres porcelánico rectificado, o acero inoxidable y deberá cumplir el CTE SUA.
• Estalkia laua izango da, ur-hustuketa behar bezala konpondua izango du eta altzairu herdoilgaitzezkoa edo kalitate egiaztatu handiagokoa izango da.	• La cubierta será plana, tendrá debidamente resuelta la evacuación de aguas y será de acero inoxidable o calidad contrastada superior.

• Kabinaren hormen, zoruen eta sabaien barne-estaldura eta pixatoki-eremuaren estaldura altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira, eta beirazko mosaikozko zatiak edo kalitate handiagoko materiala izango dute.	• El revestimiento interior de paredes, suelos y techos de la cabina y el revestimiento de la zona de urinarios serán de acero inoxidable y con partes de mosaico de vidrio o material de calidad superior.
• Zoladura irristagaitza izango da, lehorrean eta bustian. CTE SUA bete beharko du.	• El pavimento será antideslizante, en seco y en mojado. Deberá cumplir el CTE SUA.
• Hormen eta lurzoruaren arteko elkarguneek garbiketa egokia egiteko aukera emango dute, eta angelu zuzeneko elkarguneak ez dira baliozkotzat joko.	• Los encuentros entre paredes y suelo permitirán una limpieza adecuada, no considerándose válidos los encuentros en ángulo recto.
• Komun-kabinara sartzeko ateak orri bat izango du, kanporantz irekiko dena edo lerragarria izango dena, gutxienez 0,90 metroko zabalerakoa; blindatua izango da, altzairu herdoilgaitz lisokoa, eta isolamendu termiko eta akustikoa izango du.	• La puerta de acceso a la cabina de inodoro dispondrá de una hoja, abatible hacia el exterior o corredera, que tendrá una anchura libre de paso mínima de 0,90 metros; será blindada, de acero inoxidable liso y estará aislada térmica y acústicamente.
• Sarrerako ateak elektroiman programagarria duen sarraila izango du, gauez ixteko, eta ixteko mekanismo erabilerraza, larrialdietan kanpotik ireki ahal izateko.	• La puerta de acceso estará dotada de cerradura con electroimán programable para el cierre en horario nocturno y de mecanismo de cierre de fácil manejo que posibilite su apertura desde el exterior en caso de emergencia.
• Kabina hutsik geratu ondoren, automatikoki eta eraginkortasunez itxiko da atea.	• La puerta, una vez evacuada la cabina, se cerrará de forma automática y eficaz.
• Instalazioak segurtasun-sistema bat izango du, kabinaren barruan harrapatuta gera daitezkeen	• La instalación contará con un sistema de seguridad que permita el rescate de personas atrapadas en el interior

pertsonak erreskatatzeko.	de la cabina.
• Gela teknikoak, non koadro elektrikoa eta panel hidraulikoa kokatuko diren, gutxienez korronte-hargune bat izango du eta mantentze-lanak errazteko behar adina toki eta argi.	• El cuarto técnico, donde se ubicarán el cuadro eléctrico y el panel hidráulico, contará con al menos una toma de corriente y con espacio e iluminación suficientes para facilitar las labores de mantenimiento.
• Instalazio elektrikoak indarrean dagoen BTEEn ezarritako baldintzak beteko ditu.	• La instalación eléctrica cumplirá los requisitos establecidos en el REBT en vigor.
• Kabina egokituak irisgarritasunaren nazioarteko ikurra izan behar du, atearen ondoan.	• La cabina adaptada se señalizará con el signo internacional de accesibilidad colocado junto a la puerta.
• Moduluak adierazleak izango ditu, kanpotik ikusteko moduan, okupatuta, libre edo zerbitzuz kanpo dagoen egiaztatzeko. Okupatuta edo zerbitzuz kanpo dagoenean, jendea ezin izango da kabinan sartu.	• El módulo contará con indicadores que permitan de forma visible desde el exterior, comprobar si se encuentra ocupado, libre o fuera de servicio. En situación de ocupado o fuera de servicio se imposibilitará el acceso del público a la cabina.
• “Libre”, “okupatuta” edo “zerbitzuz kanpo” adierazleek argi gutxiko orduetan irakurtzeko aukera ematen duen argiztapen-gailua izan behar dute.	• Los indicativos “libre”, “ocupado” o “fuera de servicio” deberán contar con dispositivo de iluminación que permita su lectura en horas de poca luz.
• Idatzizko hizkuntza erabiltzen duten jendaurreko informazio-ohar guztiak euskaraz eta/edo hizkuntza unibertsalean adierazi beharko dira.	• Todas las indicaciones de información destinadas al público que utilicen el lenguaje escrito deberán expresarse en euskera y/o lenguaje universal.
• Zerbitzu-kontagailua izango du.	• Dispondrá de contador de servicios.
• Diseinuak eta materialek garbiketa eta kontserbazio egokia errazteko moduan konfiguratuko da espazioa,	• El espacio estará configurado de forma que el diseño y los materiales faciliten la adecuada limpieza y

eskatzen diren segurtasun mailak mantenduz.	conservación, manteniendo los niveles de seguridad exigidos.
• Erabilera publikoko eremua behar bezala bereiziko da gela teknikotik, baimendutako langileek bakarrik erabil dezaten azken hori.	• El espacio de uso público estará debidamente separado del cuarto técnico, de forma que el acceso a éste último esté restringido al personal autorizado.
• Komuneko kabinak isolamendua izango du inguru osoan, erabiltzaileen erosotasuna bermatzeko.	• La envolvente de la cabina de aseo contará con aislamiento para garantizar el confort de los usuarios.
• Modulua egiteko erabiliko diren materialak lehen kalitatekoak izango dira, iragazgaitzak, xurgatzaileak ez direnak, bandalismoaren aurkakoak, higadurarekiko erresistenteak, solidoak eta kanpoko agenteek aldaezinak (garbiketan eta desinfekzioan erabiltzen diren azidoak eta alkaliak barne).	• Los materiales empleados en la construcción del módulo serán de primera calidad, impermeables, no absorbentes, anti-vandálicos, resistentes al desgaste, sólidos e inalterables por los agentes externos (incluso ácidos y álcalis utilizados en la limpieza y desinfección).
• Egituraren iraunkortasuna eta multzoaren segurtasuna eta erresistentzia bermatuko dira, batez ere inpaktuei, korrosioari edo gradiente termikoari dagokienez.	• Se garantizará la durabilidad de la estructura y la seguridad y la resistencia del conjunto, fundamentalmente en cuanto a impactos, corrosión o gradiente térmico se refiere.
Garbiketa kabinaren ekipamendua:	Equipamiento de la cabina de aseo:
• Paper higieniko biodegradagarrirako horma-paperontzia. • Euskarri-barrak. • Zisterna automatikoa deskargatzeko sistema, atea irekitzearen baldintzapean. • Manipulatzeko eta/edo iristeko arazoak dituzten pertsonek eragin ahal izango dute instalatzen den deskarga-sistemaren sakagailua.	• Papelera empotrada para papel higiénico biodegradable. • Barras de apoyo. • Sistema de descarga de cisterna automática condicionada a la apertura de la puerta. • El pulsador del sistema de descarga que se instale será accionable por personas con problemas de manipulación y/o alcance.

• Aire beroko eskuko lehorgailua, hurbilketa-sentsore bidez aktibatua. • Konketa automatikoki garbitzeko aukera ematen duen zelulak segurtasun-sistema bat izango du, seinalea oztopatuz gero ur-hornidura jarraitua galaraziko duena. • Ispilua. • Zintzilikatzeko bat edo gehiago. • Altzairu herdoilgaitzezko eserlekua, autogarbigarria, autodesinfektatua eta lehortzen dena erabilera bakoitzaren ondoren. • Barneko airearen kalitatea bermatzen duen aireztapen-sistema, EKTren arabera. • Argiztapen artifiziala, EKTren araberako argiztapen-maila egokia bermatzen duena, presentzia/argi naturala detektatzeko sistemaren bidez piztu eta itzaltzeko kontrola edo sakagailu tenporizatuko sistema duena.	• Secador de manos de aire caliente activado por sensor de aproximación. • La célula que permite la limpieza automática del lavabo contará con un sistema de seguridad que, en caso de obstaculización de la señal, impida el suministro continuo de agua. • Espejo. • Colgador, o colgadores. • Asiento en acero inoxidable, autolavable, autodesinfectado y secado después de cada uso. • Sistema de ventilación que garantice la calidad del aire interior según CTE. • Iluminación artificial que garantice un nivel de iluminación de adecuado según el CTE, dotada de control de encendido y apagado por sistema de detección de presencia/luz natural o sistema de pulsador temporizado.
• Larrialdietarako ekipo autonomoa irteeraren ondoan. • Instalazioak segurtasun-sistema bat izango du, barruan erabiltzaileak dauden bitartean garbiketa-mekanismoa ez abian jartzeko. • Alarma akustikoa izango du, erabiltzeko epea markatzeko. **Pixatokien eremuko ekipamendua:** • Pixatoki jarraitua, gutxienez 3 plazakoa, altzairu herdoilgaitzez egina, zerbitzu bakoitzaren ondoren autogarbigarria. • Pixatokiak automatikoki garbitzeko aukera ematen duen zelulak segurtasun-sistema bat izango du, seinalea oztopatuz gero ur-hornidura jarraitua galaraziko	• Equipo autónomo de emergencia junto a la salida. • La instalación contará con un sistema de seguridad que impida que se accione el mecanismo de limpieza mientras haya usuarios en el interior. • Dispondrá de alarma acústica para tiempo límite de uso. **Equipamiento de la zona de urinarios:** • Urinario corrido, de al menos 3 plazas, realizado en acero inoxidable auto-limpiable después de cada servicio. • La célula que permite la limpieza automática de los urinarios contará con un sistema de seguridad que, en caso de obstaculización de la señal, impida el suministro continuo de

duena.
- Pixatoki batek, gutxienez, 45 zentimetrora egon behar du zorutik, idulki eta irtengunerik gabe.
- Altzairu herdoilgaitzezko kanpoko babes-horma.

Garbiketa sistema:
- Garbiketan erabilitako ura homogeneizatuta egongo da desinfektatzaile batekin eta desodorantearekin.
- Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak degradagarriak izango dira.
- Zorua presiopeko ur-irteeren kopuru jakin batekin garbituko da, garbiketa ezin hobea bermatzeko.
- Kabinaren barruan autogarbiketa sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa jarriko da.
- Erabiltzen den altzairu herdoilgaitzak AISI 316 itsas kalitatekoa eta gutxienez 1,5 mm-ko lodierakoa izan behar du.
- Instalazioak presentzia detektatzeko radarraren autodiagnostiko-sistema bat izango du, autogarbiketa-prozesuko akatsik ez izateko.
- GPRS komunikazio-sistema.

3. Lana gainbegiratzea

2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratuaren arduradunari dagokio kontratuaren exekuzioa gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta behar diren jarraibideak ematea, itundutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko, bere

agua.
- Al menos un urinario debe ir colocado a 45 centímetros del suelo, sin pedestales ni resaltes.

- Mampara protectora exterior de acero inoxidable.

Sistema de limpieza:
- El agua utilizada en la limpieza irá homogeneizada con un desinfectante y con desodorante.

- Los productos para la limpieza y desinfección serán degradables.

- Lavado del suelo con un número de salidas de agua a presión que garantice un lavado óptimo.
- Se colocará información en el interior de la cabina sobre el funcionamiento del sistema de autolimpieza.
- Todo el acero inoxidable utilizado deberá ser de calidad marina AISI 316 y grosor 1,5mm como mínimo.

- La instalación contará con un sistema de autodiagnósis del radar de detección de presencia para eliminar fallos en el proceso de autolimpieza.
- Sistema de comunicación GPRS.

3. Supervisión del trabajo

De conformidad con lo previsto en el artículo 62 LCSP 2017, corresponderá al responsable del contrato supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada, dentro del ámbito de sus facultades. El responsable del contrato

eskumenen barruan. Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, entitate kontratatzaileari lotua edo hartaz kanpokoa.	podrá ser una persona física o jurídica, vinculada a la entidad contratante o ajena a él.
4.- Kalitate-kontrola	**4.- Control de calidad**
Zereginetan erabilitako material guztiek ebaluazio-sistemak errespetatu behar dituzte, esleitzen zaien sektoreko araudiarekin bat eta, zehazki, EBren markatze-sistema bete beharko dute, hori betetzea nahitaezkoa denean.	Todos los materiales empleados en las tareas serán materiales que cumplan con los sistemas de evaluación de conformidad que la reglamentación sectorial les asigne, y en concreto con el sistema de marcado CE cuando sea obligatorio para el producto en cuestión.
Materialek, lanen exekuzioak eta bukatutako esku-hartzeak eskatutako kalitatea izan beharko dute. Hala, une oro egin ahalko dira saiakerak eta probak, kontrolaren eta ikuskatze teknikoaren arduradunak egokitzat jotzen badu.	Los materiales, como la ejecución de los trabajos, y la propia intervención terminada, deberán cumplir las calidades exigidas y podrán estar sometidos, en cualquier momento, a los ensayos y pruebas que el responsable del control y supervisión técnica disponga.
5.- Segurtasun-neurriak	**5.- Medidas de seguridad**
Edozein lan egiteko, adjudikaziodunak horiek egingo diren esparrua mugatu beharko du, lanek pertsonak arriskuan jar baditzakete. Erabiliko diren babes-elementuak une oro egon beharko dira behar bezala kontserbatuta eta seinaleztatuta.	El adjudicatario, ante cualquier trabajo, deberá delimitar el recinto donde se desarrollen los mismos, cuando éstos puedan comportar riesgo para las personas. Los elementos de protección empleados se mantendrán en todo momento en perfecto estado de conservación y señalización.
Kontratua exekutatu bitartean hirugarrenei eragindako kalte edo galerak kontratistaren erantzukizuna izango dira.	Será responsabilidad del contratista los daños o perjuicios que se puedan ocasionar a terceros durante la ejecución del contrato.
Adjudikaziodunaren ardura izango da kalte-ordainak ordaintzea, ondasunetan eta eskubideetan eragindako lesioak gertatuz gero. Hori administrazio publikoen ondare-erantzukizunari eta kontratuei buruzko	Serán a cargo del adjudicatario las indemnizaciones que deba satisfacer como consecuencia de las lesiones que aquellos sufran en sus bienes y derechos, todo ello con arreglo a la legislación sobre contratos y

legediaren arabera egingo da.	responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas.
Segurtasun-neurriak ez betetzetik eratorritako erantzukizuna adjudikaziodunarena izango da; neurri horiek betetzen ez badira, Orioko Udalaren zehapena jaso lezake.	La responsabilidad del incumplimiento de las medidas de seguridad corresponderá al adjudicatario, y el incumplimiento de estas podrá ser objeto de sanción por parte del Ayuntamiento de Orio.
6.- Ingurumena babesteko neurriak	**6.- Medidas de protección medioambiental**
Lizitatzaileek egunean izango dituzte kontratu honen xede den esku-hartzearen ondorioz sortzen diren hondakinak kudeatzeko protokoloak.	Los licitadores mantendrán actualizados los protocolos empleados en la gestión de residuos que se originan como consecuencia de la intervención objeto de este contrato.
Ingurumenari lotutako honako alderdi hauek berrikusiko dira:	Se revisarán los siguientes aspectos medioambientales:
Ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta horiek berrerabili eta birziklatu ahal izatea. Hondakinen titularra enpresa adjudikazioduna izango da; hark ordaindu beharko du hondakinen kudeaketa, baita hondakin berezi eta arriskutsuena ere. Enpresa adjudikaziodunak materialak eta produktuak gordetzeari buruzko legeria aplikagarria bete beharko du.	Mínima generación de residuos, así como su reutilización o reciclabilidad. La titularidad de los residuos será de la empresa adjudicataria que gestionará a su costa todos los residuos generados, incluidos los especiales y peligrosos, debiendo la empresa adjudicataria cumplir con la legislación vigente acerca de almacenamiento de materiales y productos.
Produktu edo substantzia arriskutsuak, minbizia eragin dezaketenak, mutagenikoak eta ugalketarako toxikoak izan daitezkeenak (CMR) ezabatzea edo horien erabilera murriztea, bereziki R 50/53 arriskua duten substantziak.	Eliminación o reducción de la utilización de productos o sustancias peligrosas carcinogénicas, mutagénicas y tóxicas para la reproducción (CMR) y en especial la sustancias con riesgo R 50/53.
Berotegi-efektua eragiten duten gasen (GEÍs), besteak beste CO2, HFC, PFC eta SF6, igorpenak murriztea.	La reducción de emisiones de gases de efecto invernadero (GEÍs), tales como el CO2, HFC, PFC y SF6.
Igorpen kutsagarriak murriztea, besteak beste partikulak (PM10, PM 2,5),	La reducción de emisiones contaminantes tales como las partículas (PM10, PM 2,5), los

disolbatzaileak (COV) eta nitrogeno oxidoak.	disolventes (COV) y óxidos de nitrógeno.
Urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauak, uren politikaren esparruan elkarteetarako jarduteko marko bat ezartzen duenak, lehenesten dituen substantziak uretara ahalik eta gutxien isurtzea.	La minimización de vertido al agua de las sustancias priorizadas por la Directiva 2000/60/CE, de 23 de octubre, por la que se establece un marco comunitario de actuación en el ámbito de la política de aguas.
Produktu edo substantzia arriskutsuak ez erabiltzea edo erabilera murriztea.	La eliminación o reducción de la utilización de productos o sustancias peligrosas.
Azken produktuari material birziklatuak gehitzea eta horiek kaltegabeak izatea.	La incorporación e inocuidad de materiales reciclados al producto final.
Azken produktua biodegradagarria izatea.	El carácter biodegradable del producto final.
Orioko Udalak sortutako hondakinen kontrolari eta jarraipenari buruzko agirien kopia edo horiei buruzko beste edozein agiri eskatu ahalko dio enpresa adjudikatzaileari, eta hura behartuta egongo da hori ematera.	El ayuntamiento de Orio, podrá solicitar a la empresa adjudicataria, y ésta estará obligada a entregarla, una copia de los documentos de control y seguimiento de residuos generados o cualquier otra información que considere oportuna referida a los mismos.
7.- Agiri teknikoak	**7.- Documentación técnica**
Agiri guztiak euskarri informatikoan eta paperean aurkeztu beharko dira, erreferentziako kontratua arautu behar duten administrazio-baldintza partikularren pleguan zehaztutako moduan.	Toda la documentación se deberá entregar en soporte informático y en papel, en la forma en que se determine en el pliego de cláusulas administrativas particulares que ha de regir el contrato de referencia.
Proposamen ekonomikoarekin batera, memoria tekniko deskribatzailea ere aurkeztu beharko da; bertan, horniduraren ezaugarri teknikoak zehaztuko dira. Horrez gain, egokitzat jotzen diren eta aurkeztutako eskaintza hobeto ulertzeko balio dezaketen agiriak ere aurkeztuko dira.	Se deberá entregar una memoria técnica descriptiva, donde se detallen las características técnicas del suministro, además de cualquier otro tipo de documentación que consideren oportuna y que sirva para un mejor conocimiento de la oferta presentada.
8.- Bermealdia	**8.- Plazo de garantía**

Ez dira onartuko (1) URTE BETE baino gutxiagoko bermeak eskaintzen dituzten eskaintzak.	No se admitirá ninguna oferta que prevea garantías menores a (1) AÑO.
Eskainitako berme osoaren epea zehatz azalduko da.	Se detallará el tiempo de la garantía total ofertada .
Adjudikaziodunak gutxienez urte betez bermatuko ditu egiten dituen jarduketak; jarduketa horiek berak ordainduko ditu, eta Orioko Udalak ez du ezer ordaindu beharko instalazioak behar bezala funtzionatzeko egin beharreko mantentze-lanei dagokienez.	El adjudicatario garantizará al menos por periodo de un año todas las actuaciones que realice, debiendo realizar a su costa y sin cargo alguno para el ayuntamiento de Orio los mantenimientos necesarios para su correcto funcionamiento.
Bermea osoa da, eta barne hartzen ditu hornitutako materialak eta orduko kostuak. Halaber, sor daitezkeen gastu guztiei eragingo die, besteak beste garraio-, desplazamendu-, material- eta zerga-gastuak.	La garantía se entiende total, incluyendo materiales suministrados y costes horarios, y afectará a todos los gastos que se puedan ocasionar, tales como los de transporte, desplazamientos, materiales, e impuestos.
Bermean ez dira inolaz ere bandalismo-ekintzak sartzen.	No se incluyen en ningún caso acciones de vandalismo en la garantía.
9.- Mantentze-lanak eta saldu osteko zerbitzua	**9.- Mantenimiento y Servicio post venta**
Urtebeteko berme-epean, mantentze-lanak eta saldu osteko zerbitzuak barne hartu beharko dute.	Durante el plazo mínimo de garantía establecido de 1 año, el mantenimiento y Servicio post venta deberá estar incluido.
Komun autogarbigarriaren urteko mantentzerako eskaintza egingo da, urtean 12 bisita tekniko egingo direla kontuan hartuta. Era berean, bisita bakoitzeko prezio unitarioa adieraziko da, kontratatutakoa baino bisita osagarri edo konponketa gehiago behar izanez gero. Mantentze-lanetan sartzen dira ekintza bandalikoetan jatorria ez duten konponketak.	Se realizará una oferta para el mantenimiento anual del aseo autolimpiable, teniendo en cuenta que se realizaran 12 visitas técnicas al año. Así mismo, se indicará el precio unitario por visita, para el caso de que fuese necesaria una visita suplementaria o reparación más allá de lo contratado. El mantenimiento incluirá las reparaciones cuya naturaleza no tenga un origen en actos vandálicos.
Egin beharko dira:	Deberá realizarse:

• Mantentze prebentiboa • Mantentze zuzentzailea (bandalismoa izan ezik)	• Mantenimiento preventivo • Mantenimiento correctivo (excepto vandalismo)
Instalazioetan aldizkako eragiketak egingo dira, matxurak edo funtzionamendu-irregulartasunak ahalik eta gehien murrizteko; besteak beste, honako hauek egingo dira: instalazioa egiaztatzea, kalibratzea, doitzea, garbitzea, koipeztatzea eta azterketak egitea. Horretarako, konpondu edo ordeztu egingo dira funtzionamenduaren fidagarritasuna murriztu dezaketen piezak, edo matxurak eta elementuen pixkanakako degradazioak eragin ditzaketen piezak; bestalde, hobiak, kasetoiak eta makina-gelak garbitu egingo dira.	Serán operaciones periódicas que se realizarán sobre la instalación con el objeto de reducir al mínimo las averías o irregularidades de funcionamiento, incluyendo comprobación, calibración, ajuste, limpieza, engrase y chequeos reparando o sustituyendo aquellas piezas que puedan mermar la fiabilidad de funcionamiento u ocasionar averías y degradaciones paulatinas de los elementos, y limpieza del saneamiento, casetones y cuartos de máquinas.
Orioko Udaleko bulego teknikoari hileko txosten bat bidaliko zaio, egindako mantentze-lanen berri emanez eta erabilera-kontagailuaren datuak emanez.	Se remitirá a la oficina técnica del ayuntamiento de Orio un parte mensual con el informe de las labores de mantenimiento realizadas y datos del contador de uso.
Berrikuspenaren gutxieneko eginkizunak: • Sistemen funtzionamendu egokia zehazteko probak eta berrikuspenak egitea • Segurtasun-gailu eta funtsezko elementu guztiak aldizka berrikustea. • Beren izaera edo ezaugarriengatik hala eskatzen duten edo legez ezartzen diren elementu guztiak lubrifikatu eta garbitzea, fabrikatzaileak gomendatutako berariazko lubrifikatzaileak erabiliz. • Antzemandako arazoak araztea, egoera txarrean, gastatuta eta hondatuta dauden piezak ordezkatuz,	Tareas Mínimas de la revisión: • Realización de pruebas y revisiones para determinar el correcto funcionamiento de los sistemas • Revisión periódica de todos los dispositivos de seguridad y elementos vitales • Lubricación y limpieza de todos los elementos que por su naturaleza o características lo requieran o legalmente se establezcan con la periodicidad pertinente, utilizando lubricantes específicos recomendados por el fabricante. • Depuración de problemas detectados, sustituyendo piezas en mal estado, gastadas, y deterioradas,

lanpara urtuak ordeztuz. • Ekipoak behar bezala funtzionatzeko eta haien balio-bizitza luzatzeko beste edozein jarduketa. • Atea eta haren osagaiak garbitu eta errepasatzea. • Komuneko taparen sistema eraisgarria berrikusi, garbitu eta mantentzea. • Uraren igarotze-mailak egiaztatzea. • Elementu hidraulikoak berrikustea eta egiaztatzea • Automatismoen funtzionamendu orokorreko probak. • Kontagailuen erregistroa egiaztatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan Laguntza Zerbitzu Teknikoaren ordezkaritza bat egotea bermatu beharko da. Gorabeherei erantzuteko denbora ez da 48 ordutik gorakoa izango, ezta 96 ordutik gorakoa ere osagaiak aldatzeko. Honako hauek zehaztuko dira: laguntza teknikoaren zerbitzuaren kokapena, matxurak konpontzeko ordutegia, erantzuteko denbora, neurri konpentsatzaileak eta udal teknikariekin zuzeneko harremana izango duen pertsonaren datuak. **10.- Kontratistaren betebeharrak** Kontratistak prestatutako langileak jarriko ditu hornikuntzaz ardura daitezen. Adjudikaziodunak proposatu duen hornikuntzaren programa xehatua aurkeztuko dio Orioko Udalari, behin betiko adjudikazioa jakinarazi denetik 10 eguneko epean.	incluyendo la sustitución de lámparas fundidas. • Cualquier otra actuación para mantener en correcto estado de funcionamiento los equipos y prolongar la vida útil de los mismos. • Limpieza y repaso de puerta y sus componentes. • Revisión, limpieza y mantenimiento del sistema abatible de la tapa del inodoro. • Comprobación de niveles de paso del agua. • Revisión y verificación de los elementos hidraúlicos. • Pruebas de funcionamiento general de los diferentes automatismos. • Comprobación del registro de contadores. Deberá garantizarse la presencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco de una delegación del Servicio Técnico de Asistencia. El tiempo de respuesta ante incidencias no deberá ser superior a 48 horas, ni a 96 horas para la sustitución de componentes. Se detallará la ubicación del servicio de asistencia técnica, el horario de atención de averías, tiempos de respuesta, las medidas compensatorias y datos de la persona de contacto directo con los técnicos municipales. **10.- Obligaciones del contratista** El contratista pondrá a cargo del suministro personal competente encargado del mismo. El adjudicatario presentará al ayuntamiento de Orio en el plazo de 10 días, a contar desde la notificación de la adjudicación definitiva, un programa detallado del suministro que haya presentado.

Indarrean dauden araudi eta xedapen guztiak (instalazio elektrikoak eta beste aplikazio batzuk) betetzeaz gain, kontratistak beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu langileen eta hirugarrenen segurtasun osoa bermatzeko; neurri horiek hartzea eta betearaztea kontratistaren erantzukizuna izango da oso-osorik, eta inolaz ere ez Orioko Udalarena.	Aparte del cumplimiento de todos los reglamentos y disposiciones vigentes instalaciones eléctricas y otras aplicaciones), el contratista adoptará bajo su exclusiva responsabilidad y vigilancia todas las medidas necesarias para garantizar la más absoluta seguridad del personal y de terceros, con total impunidad para el ayuntamiento de Orio.
Kontratista ez da soilik bere egintzen erantzule izango; horrez gain, bere zerbitzuak ematen dituzten langileen edo azpikontratatu dituen enpresen egintzen erantzule ere izango da (guztiek solidarioki erantzungo dute). Horrez gain, kontratistak beste pertsona batzuei erantzun behar badie, horien egintzen erantzule ere izango da.	El contratista no sólo responderá de sus propios actos, sino también de todo el personal que preste sus servicios o en empresas subcontratadas (respondiendo todos de forma solidaria) así como de las personas para las cuales tenga que responder de acuerdo con la legislación vigente.
Kontratista izango da adjudikatutako lanak egiterakoan langileek edo hirugarrenek jasan ditzaketen istripuen erantzule.	El contratista será responsable de los accidentes que puedan suceder a todo el personal o a terceras personas como consecuencia de la realización de los trabajos adjudicados.
Kontratistak nahikoa gaitasun izan beharko du bere xede sozialean. Xedapen hori betetzen ez bada, baztertu egingo da.	El contratista deberá de estar en posesión en su objeto social de la capacidad suficiente. El incumplimiento de esta disposición será motivo de exclusión.
Adjudikaziodunaren ardura izango da erabilitako materialen eta elementuen kalitatea bermatzea, baita plegu hau indarrean dagoen bitartean egiten dituen konponketetan, aldaketetan, hobekuntzetan, lekualdatzeetan eta hornikuntzetan egiten dituen muntaketen kalitatea bermatzea ere. Horrez gain, zerbitzuak barne hartzen dituen lanei eragiten dieten udal-ordenantzak bete beharko ditu, eta bera izango da instalazioek, operazioek, langileek	El adjudicatario será responsable de la calidad de los materiales y elementos utilizados y de los montajes efectuados en las reparaciones, modificaciones, mejoras, re-emplazamientos y suministros que efectúe mientras esté en vigor el presente pliego, así como el cumplimiento de todo lo establecido en las Ordenanzas Municipales que afecten a los trabajos comprendidos en el servicio y de todos los accidentes o daños causados por las instalaciones, por las

eta adjudikatu zaizkion lanak egiteko erabili dituen bitartekoek eragindako istripu edo kalteen arduraduna, kontratua betetzen ari dela.	operaciones, el personal y medios utilizados en el desempeño de dichas labores tiene encomendados, en razón del cumplimiento del contrato.
11.- Lanak zaintzea	**11.- Vigilancia de los trabajos**
Ez da Orioko Udalaren ardura izango adjudikaziodunak kontratua gauzatu bitartean Udalaren jabetzako instalazioetan dituen materialen eta bitarteko teknikoen segurtasuna bermatzea. Egokitzat joz gero, kontratistak zaintza-zerbitzua ezarri ahalko du, bere kontura, egokitzat jotako eperako.	El ayuntamiento de Orio no será responsable de la seguridad de los materiales y medios técnicos que el adjudicatario tenga depositados en las dependencias municipales durante la realización del contrato. El contratista podrá establecer, si lo estima oportuno, y por su cuenta un servicio de vigilancia durante el tiempo que estime oportuno.

Orion 2023ko urtarrila